

Trebiñuko enklabea

Azterketa soziolinguistikoa

2012

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Trebiñuko enklabea Azterketa Soziolinguistikoa

2012

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>>.

Argitaraldia: 1.a, 2012ko azaroa

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena: IZO (IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Azalaren diseinua: Antton Olariaga

Maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: Gráficas Irudi

ISBN: 978-84-457-3270-0

Lege Gordailua: VI 842-12

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.	
Lurdes Auzmendi, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	5
Aurkezpena eta fitxa teknikoa	7
1. Ezaugarri soziodemografikoak	11
2. Hizkuntza-gaitasuna	21
3. Euskararen erabilera	31
4. Euskararen sustapenari buruzko iritziak	39
Eraitza nagusien laburpena	47

HITZAURREA

Lurdes AUZMENDI

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Ikerketa soziolinguistikoen alorrean denborarekin sendotuz joan den eskarmentu handia dugu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan. Horren oinarria inkesta bidez aldi behin burutzen diren azterlanek osatzen dute, eta azterlan horiek, hain zuzen, gure egoera soziolinguistikoaren bilakaera modu antolatuan jarraitzeko bide ematen digute.

Euskarari dagokion ezer ez zaigu arrotz egiten, klasikoaren adagioa gurera ekarriz, eta horrexegatik gure tradizioarekin bat dator euskara hitz egiten den lurralde guztietan hizkuntzaren garapenaren baldintzak aztertzea. Horrekin lotua dago, esate baterako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bost urterik behin egiten dituen inkesta soziolinguistikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik Nafarroan eta Iparraldean ere egin izana.

Azken urteotan, euskararen presentzia nabarmena duten lurraldeei Trebiñuko enklabea batu zaie. Trebiñuko enklabeak biztanle gutxi dituela esan daiteke (2.000 biztanle baino zertxobait gehiago), baina gero eta euskaldun gehiago dago bertan, neurri handi batean mugimendu demografikoen eraginez.

2002. urtetik hona, bost urtean behingo maiztasunez kasu honetan ere, Trebiñuko egoera soziolinguistikoak izan duen bilakaerari begiratu diogu. Horretarako, laguntza handikoa izan da enklabea osatzen duten bi udalerrietako agintariek eskaini diguten lankidetzak (Trebiñuko Konderria eta Argantzun). Zinez eskertu nahi dizkiet eman dizkiguten erraztasunak.

Eusko Jaurlaritzak eta Gaztela eta Leongo Juntak 2012ko hasieran sinatutako lankidetzak protokoloan kultura- eta hizkuntza-alderdiak ere jaso ziren; hortaz, bi komunitateok badugu orain komunikazio bide ireki bat Trebiñuko enklabea hezkuntza edota

euskararen sustapena bezalako gaiak elkarrekin lantzeko. Horrez gain, aipatutako protokoloan berariaz egiten zaio aipamena bi komunitateen arteko lankidetzari euskararen eta gaztelaniaren egoera eta jatorriari buruzko azterlanei dagokienez. Hain zuzen ere, ildo horretan kokatzen da Trebiñuko enklabea soziolinguistikoa.

Azterlanean jasotako informazioari begiratuta, emaitzak oso baikorrak dira euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokionez: hamar urtean euskaldunen kopurua bikoiztu egin da (gaur egun biztanleen % 22 dira), eta, era berean, elebidun hartzaileen kopurua nabarmen handitu da (kopurua biztanleriaren % 17ra arte heldu baita). Erabilera ere dezente areagotu da, hizkuntza-gaitasunaren alorrean izandako igoeraren proportzioran, izan ere. Inkestaren emaitzekin osatutako txostenak zehatz-mehatz aztertzen ditu igoera horretan eragin duten faktoreak. Horien artean nagusia, lehenago aipatutakoa, Arabako biztanleen mugimendu demografikoa izan da; izan ere, hainbat biztanle Trebiñuko enklabea mugitu dira, batez ere Vitoria-Gasteiz hiriburutik.

Trebiñuko biztanleek euskararekiko duten jarrera orokorra ere pozgarria da, biztanleen % 40 inguruk euskararekiko interes handia adierazi baitu. Baldintza horietan euskararen ezagutzak eta erabilerak zalantzarik gabe aurrera egin dezakete datozen urteetan.

Unibertso txikia izan arren, ematen du Trebiñun kontzentratu –baita bizkortu ere– egiten direla Euskal Autonomia Erkidegoan jaso ohi ditugun bilakaera-joerak: aurre-rapen sendoa euskararen ezagutzari dagokionez, eta pixkanakako progresioa erabilerari dagokionez. Agerikoa da enklabeak badituela ikuspuntu soziolinguistikotik begiratuta berezitasuna ematen dioten ezaugarriak, baina, hala ere, haren azterketak lagundu egiten du ulertzen beste lurralde batzuen kasuan ere euskararen gizarte garapenean eragina duten faktoreak.

Inkestaren emaitzek, argitalpen honen bidez ezagutzera ematen ditugun horiek, Trebiñuko enklabearen gaur egungo egoeraren argazki zehatza ematen digute, eta enklabearen bilakaera soziolinguistikokoaren mekanismoak eta arrazoiak ulertu ahal izateko gakoak ere eskaintzen dizkigute.

Aurkezpena eta Fitxa Teknikoa

Azterketa honek bi helburu nagusi ditu: Trebiñuko enklabea edo Barrendegia osatzen duten bi udalerrietako biztanleen euskararen ezagutza eta erabilera azterzea, batetik, eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko jardueren aurrean dituzten iritziak ezagutzea, bestetik.

Azterketa, gainera, 2002an eta 2007an egindakoen antzekoa da, eta, beraz, azken hamar urteetan izan diren aldaketak hautematen lagunduko digu.

Txostenak lau kapitulu ditu:

1. Lehenik, Trebiñuko enklabeko biztanleriari buruzko ikuspegi garbia izateko, azterketa soziodemografiko xume bat egingo da, eta biztanleriaren ezaugarri nagusiak aztertzeke balioko digu.
2. Jarraian, hizkuntza-gaitasuna aztertuko da, hau da, biztanleen euskara-ezagutza; baita ezagutzaren jatorria ere: familia-transmisioa edo eskola.
3. Euskararen ezagutzaren ondoren honakoak aztertuko dira: euskararen erabilera etxean, adiskide eta lankideen artean eta baita sare sozialetan ere.
4. Azkenik, aztertuko da zer iritzi duten biztanleek euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeaz.

Maiatzaren 9tik 20ra bitartean egin da azterketa egiteko informazio-bilketa. Etxean galdetu zaie herritarrei galdetegi itxi eta egituratu baten bidez. Galdetegia 2002ko eta 2007ko azterketetan erabilitakoaren antzekoa da, eta bost urtean behin Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egiten duen Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa jasotako galdera garrantzitsuenak dauzka barne. Galdetegiko galderak, gainera, bateragarriak dira Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroan Biztanleriaren Zentsuan jasotakoekin.

Trebiñuko enklabean erroldatuta dauden edo ohiko bizilekua duten 2 urteko edo gehiagoko 2.300 pertsonak osatzen dute aztertutako unibertsoa. 2011ko udal-erroldan, 2 urteko edo gehiagoko 1.930 pertsona daude jasota Trebiñuko enklabean, eta haietako 1.421i egin zaie elkarrizketa, hots, % 74ri. Beste 375 pertsonaren informazioa jaso da. Azken hauek ez daude han erroldatuta, baina enklabean bizi dira normalean. Beraz, 1.796 pertsonaren informazioa jaso da.

Erroldan jasota dauden eta elkarrizketatu diren pertsonen ehunekoa (% 74) berdintsua izan da enklabea osatzen duten bi udalerrietan: % 74 Trebiñuko Konde-
rrian, eta % 73 Argantzunen. Eta honako hiru arrazoi hauengatik ezin izan zaio
elkarrizketarik egin gainerako % 26ari:

1. % 4k uko egin dio galderei erantzuteari. Nahiz eta kasu zehatzen batean
azterketak jorratzen duen gaiarengatik, euskararengatik, izan den ukoa,
kasurik gehienetan «inkesta mota guztiekiko» arbuioagatik izan da.
2. % 2 luzaroan etxetik kanpo (ospitaleratuta, oporretan, lanean...) ziren
pertsonak izan dira, edota galderei erantzuteko gai ez zirenak (persona
oso nagusiak, batez ere).
3. Azkenik, ezin izan da gainerako % 20a elkarrizketatu, hau da, ezin izan
da haiekin harremanetan jarri, nahiz eta gutxienez bost bisita egin ordu
eta egun desberdinetan, asteburuetan barne. Gehienak Trebiñuko enkla-
bean daude erroldatuta (urbanizazio sortu berrietan, nagusiki), baina ez
dira han bizi normalean.

Aurreko azterketekin konparatuta, behera egin du inkestari uko egiteak: % 7 izan zi-
ren 2002an; % 5 izan ziren 2007an, eta % 4 izan dira oraingoan. Dena dela, gora egin
du aurkitu ezin izan diren pertsonen ehunekoak: % 12 izan ziren 2002an, % 16 izan
ziren 2007an eta % 20 oraingoan. Gorakada hori normalean enklabean (urbanizazio
sortu berrietan, nagusiki) bizi ohi ez den biztanleriaren hazkundearekin dago lotuta.

Ezin izan denez biztanleen % 26 elkarrizketatu, baliteke azterketaren emaitzek
halako alborapen bat izatea. Alde batetik, uko batzuk azterketaren gaiarekin lo-
tuta daudenez, alborapena, nahiz eta txikia izan, euskararen aldekoa litzateke.
Bestetik, ezin da jakin ea alborapenik dagoen aurkitu ezin izan diren (urbanizazio
berrietako) pertsonen artean; izatekotan, ordea, aurreko alborapenaren aurkakoa
litzateke, zeren urbanizazioetan emaitzak euskararen aldekoagoak (gutxi) baitira.
Beraz, alborapen horiek egonez gero, pentsatu behar da berdinduta geratuko lira-
tekeela; oso txikiak lirateke, edonola ere.

Nahiz eta ez izan alborapenik emaitzetan, edo hura oso txikia izan, ezin izan de-
nez unibertso osoa elkarrizketatu, lagin batetik datozen emaitzak aztertuko dira.
Hala ere, lagina oso handia denez, eta unibertsoa txikia, lagin-errorea % ± 1 litzate-
ke, gehienez ere, % 95eko konfiantza mailarako lagin osoko emaitzetan. Honelako
inkestetan ohi den baino askoz lagin-errore txikiagoa du, hura % ± 3 tik gorakoa
izaten baita normalean.

Txostenean emaitzak aztertzean, elkarrizketatutako guztiak hartuko dira aintzat,
Trebiñun erroldatuta egon ala ez. Jadanik aipatu da elkarrizketatutako 1.796 per-

tsonetatik 375 ez daudela enklabeen erroldatuta, baina han bizi dira, eta gehienak erroldatutako pertsona baten bikotekideak edo seme-alabak dira. Gainera, haien ezaugarriak eta erroldatuta dauden pertsonenak oso antzekoak dira.¹

Horri dagokionez, datu bat aipatu beharra dago: aurreko azterketetan (2002 eta 2007) Trebiñuko enklabeen erroldatutako pertsonak baino ez ziren aintzat hartzen, nahiz eta eranskin batean erroldatu gabeko pertsonen ezaugarri nagusiak ere jasotzen ziren. Beraz, bilakaerak aztertzerakoan, baliteke 2002 eta 2007ari dagozkien emaitzak bat ez etortzea orduko txostenetan argitaratuta daudenekin. Izan ere, orain pertsona elkarrizketatu guztiak hartuko dira aintzat hiru azterketetan, Trebiñuko enklabeen erroldatuta daudenak eta ez daudenak.

Txostenean, Trebiñuko enklabeen biztanleria osoaren emaitzekin batera, enklabea osatzen duten bi udalerrietakoak ere aztertuko dira, eta aldeztu aurretik adierazi behar da Trebiñuko Konderriko emaitzak hurbilago daudela enklabe osokoetatik Argantzungoak baino, zeren enklabeen biztanleen % 73 Trebiñuko Konderrian bizi baita.

Gainera, interesik handieneko emaitzak galdetegian jasotako izaera soziodemografikoko aldagai nagusien arabera aztertuko dira; elkarrizketatuen adina eta jatorria (sorlekua) bereziki.

1 Trebiñuko enklabeen erroldatu barik dauden eta elkarrizketa egin zaien 375 pertsonetatik % 80 erroldatutako baten bikotekide (% 44) edo seme-alabak (% 36) dira. Haien ezaugarriak enklabeen erroldatutakoen antzekoak dira. Apur bat gazteagoak izatea da haien bereizgarri nagusia, seme-alaben ehuneko handixeagoa baita haien artean. % 30ek 25 urte baino gutxiago du, enklabeen erroldatuta dauden % 20aren aurrean. Horren ondorioz, euskaldunen proportzioa handixeagoa da (% 28), erroldatutako pertsona baino (% 20). Bestalde, Gasteizekin lotuago daude erroldatutakoak baino. Lanean ari diren % 81ek Gasteizen edo inguruetan egiten du lan, erroldatutakoen % 72ren aldean. Azkenik, erroldatu bakoaren artean ikasten ari diren % 86k Gasteizen edo inguruetan egiten du, baina erroldatutakoen % 68k baino ez.

1. Ezaugarri soziodemografikoak

Egun Trebiñuko enklabeen bizi den biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoen alde handia dute duela 20 edo 30 urtekoekin alderatuta. Joera argia izan dute belaunaldi berriek nekazaritzarekin lotutako lanari utzi eta Gasteizko eta inguruetako industrietan edo zerbitzuetan lan egiteko. Horrekin batera, berriz, enklabeen biztanleriaren osaera errotik aldatu duen gertaera izan da biztanle "hiritar" berrien etorrera, urbanizazio berriak eraiki direlako.

Azken 15 urteetan, 1996 eta 2011 bitartean, enklabeen erroldatutako biztanleria ia bikoiztu egin da: 1.117tik 1.978ra. Enklabeen egungo biztanleriaren ia hirutik bat urbanizazio berrietan bizi da; proportzio handiagoan Argantzunen (ia bitik bat) Trebiñuko Konderrian baino (lautik bat). Gainera, aipatutako urbanizazioetako biztanle gehienek ezaugarri jakin hauetako "profil mota" hau dute: bikotekide gazteak edo adin ertainekoak, 30 eta 55 urte bitartekoak, seme-alabadunak edo gabeak, biak lanean ari direnak, Gasteizkoak sortzez, eta han lan egiten dutenak.

SEXUA ETA ADINA

Enklabeen herritarren lehen bereizgarria, nahiz eta ez nabarmenena, hauxe da: gizonezkoen ehunekoa (% 54) emakumezkoena (% 46) baino handiagoa da. Dena dela, desoreka hori enklabeen jaiotako pertsonen artean bakarrik gertatzen da. Haien artean, izan ere, ia hirutik bi (% 64) gizonezkoak dira.


Are desoreka handiagoa dago adinen artean: hurrengo orrialdeko grafikoan ikus daitekeenez, biztanleriaren erdiak (% 50) 25 eta 49 urte bitartean ditu. 49 urtetik gorako pertsonak lautik bat baino apur bat gehiago dira (% 28) eta 25 urtetik beherakoak, berriz, ez dira lautik bat ere (% 22).

Adinaren arabera banaketa hori (biztanleriaren bitik bat, 25 eta 49 urte bitartekoa, eta hirutik bat, 35 eta 49 urte bitartekoa) da Trebiñuko enklabeen biztanleriaren bereizgarrietako bat. Horrek eragin handia du, jakina, beste ezaugarri soziodemografiko batzuetan; bereziki, lanean ari den biztanleen ehuneko handian.

2002an egindako lehen azterketaren aldean, «pisua» galdu dute adin talde guztiek, hauek izan ezik: 35 eta 49 urte bitartekoak, % 27tik % 34ra igo baitira, eta


2 eta 15 urte bitartekoak, % 9tik % 16ra igo baitira. Hau da, azken 10 urteetan handitu egin da haurrak dituztenen «pisua».

1. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa adinaren arabera. TrebiŦuko enklabea, 2012



Adinaren araberako biztanle-banaketan ez dago ia alderik bi udalerrien artean. TrebiŦuko Konderrian, hala ere, apur bat handiagoa da 64 urtetik gorako pertsonen ehunekoa (%13) Argantzunen baino (% 8).

2. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa adinaren arabera. Argantzun eta TrebiŦuko Konderria, 2012



Enklabeen jaiotako biztanleria bereizten da gehien gainerakotik. Alde batetik, ia lautik batek (% 24) 64 urtetik gora du, eta, bestetik, hirutik batek (% 35), 16 urte baino gutxiago. Azken datu horixe da azterketako berritasun nagusietako bat, zeren enklabeen sortutakoen artean 16 urtetik beherakoak baitira talderik handiena, eta, gainera, gehienak «enklabeen jaio ez zirenen» eta urbanizazioetan bizi direnen seme-alabak dira.


JATORRIA

Trebiñuko enklabeen jaiotakoak bertako biztanleria osoaren lautik bat baino apur bat gehiago dira (% 28), eta ezaugarri desberdinak dituzte besteen aldean. Gizonenak dira gehienak (% 64), eta gehienek 49 urtetik gora dituzte (% 43), edo 16 urte baino gutxiago (% 35). Jadanik aipatu denez, 16 urtetik beherakoak gero eta «pisu» handiagoa ari dira hartzen bertan jaiotakoen artean, eta gehienak «enklabeen jaio ez zirenen» eta urbanizazioetan bizi direnen seme-alabak dira.

Araban jaioak dira (gehienez Gasteizen) talderik handiena osatzen dutenak (% 40), eta, Euskal Herriko gainerakoan jaiotako % 8arekin batera, enklabeen biztanleriaren erdia osatzen dute.

Azkenik, soilik % 3 jaio da Burgosko probintzian (gehienez, Mirandan), baina erlatiboki handia da Espainiako gainerakoan edo munduko beste toki batzuetan jaiotakoen ehunekoa (% 20).


3. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa jaioterriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Enklabeko bi udalerrietan, biztanleriaren erdia Euskal Herrian jaio da, baina enkla-bean jaiotakoen proportzioa handiagoa da Trebiñuko Konderrian (% 31), Argantzunen baino (% 20). Argantzunen, aldiz, handiagoa da Espainiako gainerakoan edo beste leku batzutan jaiotako pertsonen ehunekoa (% 27) Trebiñuko Konderrian baino (% 18).

Eta bertan jaiotako biztanleriak adinaren arabera daukan proportzioari dagokionez, gutxiengo garbia dira adin talde guztietan, salbu bi muturretan: gehiengoa dira (% 55) 64 urtetik gorakoen artean, eta gehiengoa, halaber, (% 60) 16 urtetik beherakoen artean.

4. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa jaioterriaren arabera. Argantzun eta Trebiñuko Konderria, 2012




LAN-JARDUERA ETA LANBIDEA

Trebiñuko enklabeko biztanleriaren beste ezaugarri berezietako bat, adin taldeen banaketa bereziaren ondorioz, lanean ari direnen ehuneko handia da, biztanleria osoaren ia bi heren (% 62) baitira; % 13 bere kontura ari da, eta % 43, besteren kontura. Langabezia % 6koa da.


Lanean ari ez direnen artean, % 13 erretiratuta dago; % 4 etxeko lanetan aritzen da, eta % 20 ikasten ari da.

5. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa lan-jardueraren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012




Lanean ari direnen proportzioan ia ez da alderik udalerrien artean, baina beren kontura ari direnak gehiago dira Trebiñuko Konderrian (% 15) Argantzunen baino (% 9). Gainera, erretiratuen ehunekoa handiagoa da Trebiñuko Konderrian (% 15) Argantzunen baino (% 7).

Lanean ari direnen artean, gehienak enplegatutak (% 30) eta langileak (% 29) dira. Haien ondotik, autonomoak eta merkatariak (% 21), teknikariak eta langile liberak (% 11) eta azken tokian nekazariak (% 9). Azken 10 urteetan, nekazarien ehunekoa erdira jaitsi da, 2002ko % 18tik egungo % 9ra.

6. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa lanbidearen arabera. Trebiñuko enklabea, 2012

Udalerrika, badira alde batzuk lanbideari dagokionez, zeren nekazariak eta autonomoak nahiz merkatariak, ugariagoak baitira Trebiñuko Konderrian (% 10 eta % 22, hurrenez hurren) Argantzunen baino (% 5 eta % 17, hurrenez hurren). Langileen ehunekoa, aldiz, txikiagoa da Trebiñuko Konderrian (% 26) Argantzunen baino (% 37).

Lanean ari direnen lautik hiru (% 74) Araban ari da lanean (Gasteizen edo inguruetan), eta soilik bosten bat (% 19) ari da Trebiñuko enklabean bertan. % 7k, berriz, Euskal Herriko gainerakoan, Mirandan edo beste toki batzuetan lan egiten du.

7. Grafikoa. Biztanleriaren banaketa lantokiaren kokapenaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012

Ez dago alde handirik bi udalerrien artean, nahiz eta enklabean bertan ari direnen proportzioa handiagoa den Trebiñuko Konderrian (% 20) Argantzunen baino (% 14).

Adinaren arabera, aldiz, aldeak nabarmenak dira: 35 urtetik beherakoen % 6 bakarrik ari da lanean enklabean, eta 35 eta 49 urte bitartekoak % 14 bakarrik, baina 49tik gorakoak artean ia bitik bat, hots, % 43.

Azkenik, oso desberdina da bertan jaiotakoak eta gainerako lekuetan jaiotakoak arteko lan-jardura. Enklabean jaiotako pertsonen artean, askoz ehuneko handiagoa osatzen dute erretiratuek (% 24) eta ikasleek (% 38), eta askoz txikiagoa, berriz, lanean ari direnek (% 32). Eta lanean ari direnen bitik batek baino gehiagok (% 57) Trebiñuko enklabean egiten du, eta ia bitik bat (% 41) nekazaritzan ari da.

IKASKETA MAILA


Trebiñuko enklabeako herritarren ikasketa maila inguruko herrietakoak antzekoa da. % 20k ez ditu lehen mailako ikasketak amaitu (gehienak 12 urtetik beherakoak dira); % 26k lehen mailako ikasketak edo OHOkoak ditu; % 12k DBH edo LH1ekoak; % 25ek goi-batxilergoa, BBB edo LH2; % 7k goi mailako ikasketak (erdiko gradua), eta % 10ek goi mailako ikasketak.

Ikasketa mailari dagokionez, ez dago alde handirik bi udalerrien artean, nahiz eta maila handixeagoa den Argantzunen Trebiñuko Konderrian baino. Adinaren arabera, aldeak, jakina, oso handiak dira. Adibidez, lehen mailako baino ikasketa handiagoak ditu 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 85ek; 64 urtetik gorakoak artean, aldiz, % 9k. Horregatik, enklabean jaiotakoak batez besteko adina handiagoa denez, haien ikasketa maila enklabetik kanpo jaiotakoena baino apalagoa da.

Baina honako hau da, beharbada, daturik esanguratsuena ikasketari dagokienez: egun ikasten ari direnen artean, lautik batek baino gutxiagok (% 22) ikasten du Trebiñuko enklabean. Gehiengo handiak, % 73k, Araban (Gasteiz) ikasten du; % 4k Burgosko probintzian (Miranda), eta gainerako % 2ak beste toki batzuetan.

Are gehiago, 12 urtetik beherakoak artean ere gutxiengo batek (% 30) ikasten du enklabean.

8. Grafikoa. Ikasleen banaketa ikastetxearen kokapenaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012




Eta lehen mailako ikasketetako hizkuntza-ereduari dagokionez, bitik batek baino gehiagok (% 60) gaztelaniaz (X eredua) egin ditu ikasketok; bosten batek (% 21) gaztelaniaz, euskara irakasgai zuela (A eredua); gutxiengo txiki batek (% 5) euskaraz eta gaztelaniaz (B eredua), eta gainerako zazpirenak (% 15) euskaraz, gaztelania irakasgai zuela (D eredua).

Halere, hurrengo orrialdeko grafikoan ikus daitekeenez, proportzioak nabarmen aldatzen dira adinaren arabera. Hala, B edo D ereduan ikasi du, hau da, eredu elebidunean edo euskaraz:

- 16 urtetik beherakoek lautik hiruk: % 15ek B ereduan, eta % 57k D ereduan.
- 16 urtetik 24ra bitartekoek ia bitik batek: % 14k B ereduan, eta % 31k D ereduan.
- 25 urtetik 34ra bitartekoek bosten batek: % 8k B ereduan, eta % 12k D ereduan.
- 35 urtetik 49ra bitartekoek % 6k.
- 49 urtetik gorakoetan inork ez.

9. Grafikoa. Hizkuntza eredu adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Azkenik, beste datu bat: Trebiñuko enklabeiko biztanleriaren bostenak dio (% 20) aritu dela euskara ikasten inoiz irakaskuntza-sistematik at.

SINTESI TIPOLOGIA

Kapitulu hau amaitzeko, eta laburpen gisa, esan daiteke Trebiñuko enklabeiko biztanleria hiru multzo desberdinez osaturik dagoela ikuspegi soziodemografikotik begiratuta:

1. Mutur batean, «enklabean jaiotakoak» daude. Enklabeiko biztanleriaren laurden bat baino gehixeago dira.
Ia bitik batek 50 urtetik gora ditu; gehienak enklabean ari dira lanean, nagusiki nekazaritzan, eta batez bestekoa baino ikasketa maila apalagoa dute.
Azken urteetan, hala ere, gero eta «pisu» handiagoa ari dira hartzen 16 urtetik beherakoak; jatorrizko biztanleriaren heren bat dira jadanik, eta, gainera, gehienak «enklabean jaio ez zirenen» eta urbanizazioetan bizi direnen seme-alabak dira.
2. Beste muturrean, berriz, «azken 15 urteetan etorritakoak» daude. Urbanizazio berriak egin zirelako etorri ziren batez ere, eta biztanleriaren heren bat baino gehiago dira dagoeneko.

Gehienak 30 eta 55 urte bitarteko bikoteak dira, seme-alabadunak edo ga-beak, Gasteiztik etorriak. Normalean, biek egiten dute lan, eta Gasteizen egiten dute.

3. Bi muturren artean, nahiz eta antz handiagoa duten etorri berriekin, «lehenago etorritakoak» daude. Biztanleriaren gainerako laurdena osatzen dute.

Hiru talde hain desberdin batuta, oso ezaugarri espezifikoak dituen biztanleria sortu da. Ezaugarri horietan, hona aipagarrienak:

- Biztanleen lautik hiru enklabetik kanpo jaioak dira (bitik bat Euskal Herrian).
- Bitik batek 25 eta 49 urte bitarteko adina du.
- Ia hirutik bi lanean ari dira; gehienak, Gasteizen.
- Ikasle gehienek, are lehen mailako ikasketak egiten ari direnek ere, enklabetik kanpo ikasten dute; ia guztiek Gasteizen.

2002koarekin konparatuta, nahiz eta 10 urte bakarrik igaro den, aldaketa garrantzitsuak izan dira biztanleriaren egituren, % 30 handitu baita biztanleria. Biztanleriaren hazkunde hori nagusiki Gasteiztik etorritako jendearengatik izan da. Immigrazio horrek ondorio garbi bat ekarri du: enklabeiko biztanleriaren osotasunak antz handiagoa du dagoeneko urbanizazio berrietan bizi den biztanleriarekin, enklabeiko «jatorrizko» biztanleriarekin baino.

Gainera, nabarmendu behar da hazi egin dela 16 urtetik beherakoek biztanlerian duten «pisua», 2002ko % 9tik egungo % 16ra igaro baitira haiek, eta gehienak enklabean jaioak dira jadanik.

2. Hizkuntza-gaitasuna


HIZKUNTZA-GAITASUNA

Trebiñuko biztanleen % 22 elebiduna da, hots, ongi edo nahiko ongi hitz egiten du bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Zifra absolututan, ehuneko horrek adierazi nahi du enklabean bizi diren 500 bat pertsona elebidunak direla. Eta elebidun gehienek (% 81) badakite euskaraz irakurtzen eta idazten, zeren ia guztiek eskolan edo beren kabuz ikasi baitute euskara.

Gainera, biztanleriaren % 17 elebidun hartzailea da, hots, euskara zerbait hitz egiteko gai da. Zifra absolututan, 400 bat pertsona.

Udalerrien arabera, elebidunen ehunekoa apur bat handiagoa da Argantzunen (% 23) Trebiñuko Konderrian baino (% 21,5). Elebidun hartzaileen ehunekoa, halaber, apur bat handiagoa da Argantzunen (% 19,5) Trebiñuko Konderrian baino (% 16).

10. Grafikoa. Hizkuntza-gaitasuna. Elebidunak. Trebiñuko enklabea, 2012



Azken 10 urteetan, bikoiztu egin da elebidunen ehunekoa Trebiñuko enklabeen. 2002an egindako azterketan % 11 zen; 2007ko azterketan % 15,5, eta orain % 22.

Hazkundera apur bat handiagoa izan da Argantzunen (2002ko % 10,5etik egungo % 23,5era) Trebiñuko Konderrian baino (2002ko % 11tik egungo % 21,5era).

Elebidun hartzaileen ehunekoa ere hazi egin da: % 9,5 zen 2002an; % 13,5 2007an, eta % 17 da orain.

11. Grafikoa. Elebidunen bilakaera. Trebiñuko enklabea, 2002-2012



Honako arrazoi hauengatik handitu da elebidunen ehunekoa Trebiñuko enklabeen azken 10 urteotan:


1. Enklabeko gazteen arteko elebidunen ehunekoa nabarmenki handitu da: 2002ko % 40tik egungo % 65era 16 urtez behetako artean, eta 2002ko % 23tik egungo % 42ra 16 urtetik 24ra bitarteko artean.
2. 16 urtez behetako enklabeko biztanlerian duten «pisua» ere nabarmenki handitu da: 2002ko % 9tik egungo % 16ra.
3. Gainera, euskaldunen ehunekoa adin talde guztietan handitu da, zeren enklabera bizitzera etorri direnen arteko euskaldunen ehunekoa apur bat handiagoa baita jadanik enklabeen bizi zirenean baino.

HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ETA BESTE ALDAGAI BATZUEN ARABERA

Hizkuntza-gaitasuna erabat aldatzen da, adinaren arabera aztertuz gero. Elebidunak bi heren dira (% 65) 16 urtetik beherakoen artean; ia bitik bat (% 42) 16 eta 24 urte bitartekoetan; lautik bat (% 23) 25 eta 34 urte bitartekoaren artean, zortziren bat (% 13), 35 eta 49 urte bitartekoengan; gutxi (% 5), 50 eta 64 urte bitartekoetan, eta ia inor ez (% 0,5), 64 urtetik gorakoaren artean.

Horregatik, enklabeleko elebidunen erdia oso gaztea da, 16 urtetik beherakoa; lautik bat 16 urtetik 34ra bitartekoa, eta gainerako laurdena 34 urtetik gorakoa.


Elebidun hartzaileen ehunekoak, ostera, bestelako bilakaera du. % 16 da 16 urtez beherakoen artean; handitu egiten da, % 25 inguru, 16 urtetik 49ra bitartekoaren artean, eta gogor egiten du behera adin horretatik aurrera: % 7 da 50 urtetik 64ra bitartekoetan, eta % 1 da 64 urtetik gorakoaren artean.



Elebidunen ehunekoan, ia ez da alderik Trebiñuko enklabean jaiotakoaren (% 26) eta Euskal Herrian (Arabara, gehienak) jaiotakoaren (% 28) artean, baina % 4ra jais-ten da ehuneko hori beste toki batzuetan jaiotako pertsonen artean.

2002. urteko datuekin alderatuz, funtsezko aldaketa gertatu da: elebidunen ehunekoa % 4 izatetik % 26 izatera pasa da enklabean jaiotakoen artean. Izan ere, nabarmen handitu dira batetik, euskaldunen ehunekoa gazteen artean, eta, bestetik, Trebiñuko enklabean jaiotako gazteen kopurua.

13. Grafikoa. Elebidunak jatorriaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Elebidunen ehunekoa apalagoa da (% 20) Trebiñuko enklabean erroldatutako pertsonen artean, erroldatuta egon gabe ere enklabean bizi direnen artean baino (% 28).

Ia ez da alderik sexuen artean, nahiz eta elebidunen ehunekoa apur bat handiagoa den emakumezkoen artean (% 23) gizonezkoen artean baino (% 21).

Ikasketa mailaren arabera, ordea, handiak dira: elebidunak % 27 dira goi mailako ikasketak egin dituztenen artean; % 15 bigarren mailakoak egin dituztenen artean, eta % 4 lehen mailako ikasketak soilik dituztenen artean (16 urtetik beherako pertsonak sartu gabe).

HIZKUNTZA-BILAKAERA

Elebidunek euskara familiaren bidez jaso dute edo irakaskuntza-sistemaren bidez edo beren kabuz (gau-eskolak, ikastaro trinkoak...) ikasi dute.


Trebiñuko enklabe biziaren % 5ek soilik jaso du euskara lehen hizkuntza gisa; % 2k hizkuntza bakar gisa, eta % 3k euskara eta gaztelania jaso ditu batera. Horregatik, enklabe biziaren gehienek eskola bidez ikasi dute euskara.

Gainera, euskara lehen hizkuntza izan duten guztiek ez dute gorde, nahiz eta gehienek (% 85) bai; gainerako %15ak hein batean galdu du hizkuntza, eta elebidun hartzaile da orain.

Elebidunen artean, beraz, badira hiru talde oso desberdin, euskararen ezagutzaren jatorriaren arabera:

1. Bosten batek (% 19) euskara izan du lehen hizkuntza.
Haietatik hirutik bik (% 64) euskara eta gaztelania izan ditu lehen hizkuntzak, eta herenak (% 36) euskara soilik.
Erdiak (% 53) 16 urte baino gutxiago du, eta hirutik batek (% 36) 25 eta 49 urte bitartean. Gehienek (% 80) D eremuan (euskaraz, gaztelania irakasgai dela) egin dituzte edo ari dira egiten lehen mailako ikasketak, eta % 8k B eremuan (elebiduna). Gainera, % 13k bere kabuz ikasi du euskara.
2. Erdiek baino gehiagok (% 60) irakaskuntza-sistemaren bitartez ikasi du euskara.
Ia guztiek 35 urte baino gutxiago dute, eta gehienek (% 62) 16 urte baino gutxiago. Lautik hiruk (% 78) D eremuan egin ditu edo ari da egiten lehen mailako ikasketak, eta gainerakoak (% 22), B eremuan.
3. Eta gainerako bostenak (% 21) bere kabuz ikasi du euskara, irakaskuntza-sistematik at.
Ia guztiek 24 urte baino gehiago dute, eta gehienek (% 74) 34 urte baino gehiago.

2002ko datuekin konparatuta, nabarmen egin du gora euskara irakaskuntza-sistemaren bitartez ikasi dutenen ehunekoak (% 36tik % 60 ra) eta behera egin du, aldiz, bai familia-transmisioz jaso dutenak (% 28tik % 19ra), bai beren kabuz ikasi dutenak (% 36tik % 21era). Bistan da gazteek euskara irakaskuntza-sistemaren bitartez ikasi dutelako egin duela gora hein handi batean elebidunen ehunekoak Trebiñuko enklabean.

14. Grafikoa. Elebidunek non ikasi duten euskara. Trebiñuko enklabea, 2012

Badira aldeak bi udalerrien artean, baina ez oso garrantzitsuak. Honako hau da bitxiena: euskara familia-transmisioz jaso duten elebidunak bi aldiz gehiago dira (% 22) Trebiñuko Konderrian Argantzunen baino (% 11).

Bestalde, elebidun hartzaileen erdiek baino gehixeagok irakaskuntza-sistemaren bitartez bereganatu du dakien euskara, eta gainerako ia erdiak, berriz, bere kabuz ikasita. % 3k soilik galdu du euskara hein batean, nahiz eta euskara eta gaztelania izan zituen lehen hizkuntza gisa.


HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA: ELEBITASUN MOTA

Aurreko atalean ikusi da Trebiñuko enklabeako elebidun gehienek (% 81) ez dutela euskara izan lehen hizkuntza gisa. Beraz, ez da harrigarria ia hirutik bik (% 63) esatea hobeto moldatzen direla gaztelaniaz euskaraz baino. Hirutik batek (% 34) dio berdin moldatzen dela bi hizkuntzetan, eta % 3k soilik esaten du errazago zaiola euskaraz aritzea.

Emaitzak ez dira ia batere aldatu 2002tik hona. Orduan, % 57k zioen errazago aritzen zela gaztelaniaz; % 39k zioen berdin moldatzen zela bi hizkuntzetan, eta % 4k esaten zuen errazagoa zitzaiola euskaraz jardutea.

Ia ez da alderik bi udalerrietako emaitzetan, zeren gaztelaniaz errazago aritzen diren elebidunak % 61 baitira Argantzunen eta % 64 Trebiñuko Konderrian.


15. Grafikoa. Elebidunek euskaraz egiteko duten erraztasuna. Trebiñuko enklabea, 2012



Hizkuntza-gaitasun erlatiboa oso loturik dago ama-hizkuntzarekin. Horrela:

- Lehen hizkuntza soilik euskara izan zutenen artean, herena (% 33) errazago moldatzen da euskaraz; ia erdia (% 45) berdin moldatzen da bi hizkuntzetan, eta bostena (% 22) errazago gaztelaniaz.
- Lehen hizkuntzak euskara eta gaztelania izan zituztenen artean, soilik % 4k hitz egiten du errazago euskaraz; erdia baino gehiago (% 58) berdin aritzen da bi hizkuntzetan, eta herenak baino gehiagok (% 38) errazago egiten du gaztelaniaz.
- Lehen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntzaren bat izan zutenen artean, laurik bat baino gehixeago (% 29) berdin moldatzen da bi hizkuntzetan, eta gainerako ia hiru laurdenak (% 71) errazago egiten du gaztelaniaz.


16. Grafikoa. Elebidunek euskaraz egiteko duten erraztasuna lehen hizkuntzaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Eta ama-hizkuntza gaztelania dutenen artean ere, bada loturarik lehen mailako ikasketak egiteko erabilitako hizkuntza-ereduaren eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren artean.


Hala, B (elebiduna), A (euskara irakasgai gisa) edo X (gaztelaniaz) ereduetan ikasi duten elebidun gehienek (% 89) hobeto moldatzen dira gaztelaniaz. Datu hori % 58ra jaisten da D ereduari (euskaraz) ikasi dutenen artean.

17. Grafikoa. Lehen hizkuntza gaztelania duten elebidunek euskaraz egiteko duten erraztasuna, euren hizkuntza-ereduaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Azkenik, ez dago alde handirik hizkuntza-gaitasunean adinaren arabera. Baina hobeto moldatzen dira euskaraz gazteak, 16 eta 24 urte bitartekoak, bereziki.

18. Grafikoa. Elebidunek euskaraz egiteko duten erraztasuna adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



3. Euskararen erabilera


Kapitulu honetan aztertuko da euskararen erabilera etxeekin, adiskideekin eta lankideekin. Familiari dagokionez, aztertuko da, gainera, zer erabilera duten 25 urtetik beherakoek beren neba-arrebekin. Azkenik, euskarak sare sozialetan duen erabilera aztertuko da.

Euskara erabiliko bada, ezinbestekoa da, jakina, behar besteko gaitasuna izatea, hartan jarduteko, baina ezinbestekoa da, halaber, solaskide guztiek, edo bederen gehienek, gaitasun bera edukitzea.

Beraz, erraz uler daiteke euskararen erabilera txikia izatea Trebiñuko enklabean, zeren biztanleen % 22 bakarrik baita hura aise erabiltzeko gai, eta, gainera, haie-tako gehienek ez dute ingurune euskaldunik aztertutako esparruetan.

Izan ere, honako hauek erabiltzen dute euskara hein handiagoan edo txikiagoan: % 10ek etxean, eta %8k lankideekin; nahikoa handitzen da erabilera adiskideekin (% 19) eta bereziki neba-arrebekin 25 urtez behekoen artean (% 34).

Erabilera antzekoa da enklabe bi udalerrietan, nahiz eta apur bat handiagoa Argantzunen, han handixeagoa baita elebidunen ehunekoa.




2002ko datuekin konparatuta, euskararen erabilera haren ezagutzaren (elebidunen ehunekoa) proportzio berean hazi da. Oro har, bikoiztu egin da: % 4tik % 10era igo da etxeke erabilera; % 4tik % 8ra lankideekin; % 9tik % 19ra adiskideekin, eta % 19tik % 34ra neba-arrebekin 25 urtez behekoen artean.

Dena dela, Trebiñuko enklabeko biztanleria osoa kontuan hartuta kalkulatu dira aurreko emaitzak, biztanleok elebidunak izan ala ez.

Biztanleria elebiduna bakarrik erreferentziatzat hartuta, ehunekoak nabarmen handitzen dira. Hala, honako hauek erabiltzen dute euskara hein handiagoan edo txikiagoan: elebidunetatik hirutik batek (% 32), etxean; ia erdiak (% 45) lankideekin; 25 urtez behekoen erdiak baino gehiagok (% 56) neba-arrebekin, eta ia hiru laurdenak (% 71) adiskideekin.

Hala ere, normalean euskara erabili ohi duten elebidunak, hau da, gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak, gutxiengoa dira lau esparruetan. Zehazki % 10 dira etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak; % 23, lankideekin; % 25 neba-arrebekin eta % 34 adiskideekin.

20. Grafikoa. Elebidunen euskararen erabilera eremu desberdinetan. Trebiñuko enklabea, 2012




2002ko datuekin konparatuta, apur bat igo da aipatutako esparruetan euskara darabilten elebidunen ehunekoa (nahiz eta gaztelania baino gutxiago erabili), baina jaitsi, pitin bat, normalean darabiltenena (gaztelania adina edo gehiago).

Adierazi den bezala, esparru horietako harreman-sareko elebidunen trinkotasunak baldintzatzen du nagusiki euskararen erabilera, zeren beharrezkoa baita sareko ia pertsona guztiak elebidunak izatea.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, honako hau da beren sarea (guztiak edo ia guztiak) elebiduna duten elebidunen ehunekoa: % 17, lankideen artean; % 19 etxean; % 51 adiskideen artean eta % 92 neba-arreben artean 25 urtez behekoetan.

Beraz, berresten da lotuta daudela harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta euskararen erabilera; hau da, zenbat eta txikiagoa izan euskaldunen dentsitatea harreman-sarean (etxean eta lanean) orduan eta gutxiago erabiltzen da euskara.

21. Grafikoa. Elebidunen euskaldunen sarea eremu desberdinetan. Elebidunak. Trebiñuko enklabea, 2012




Hala ere, ez du harreman-sareko euskaldunen dentsitateak bakarrik eragiten euskararen erabileran. Neba-arreben artean erabiltzen den ehunekoan ikusten da hori garbi: 25 urtez beheko elebidun gehienek (% 92) neba-arreba elebidunak dituzte, baina erdiek baino gehixeagok baino ez du erabiltzen euskara euren artean.

Hor, erabileran gehien eragiten duen bigarren faktorea ageri da: aurreko kapitulu-
luan aztertutako hizkuntza-gaitasun erlatiboa (hizkuntza batean edo bestean min-
tatzeko erraztasuna).

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala:

- Euskaraz errazago mintzatzen diren elebidunen artean, guztiek (% 100) gehiago egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino neba-arrebekin.
- Bi hizkuntzetan berdin moldatzen direnen artean, soilik % 6k egiten du gehiago euskaraz neba-arrebekin; % 32k bi hizkuntzetan berdin; % 28k gaztelaniaz gehiago eta % 34k gaztelaniaz bakarrik.
- Eta gaztelaniaz errazago aritzen direnen artean, % 1ek soilik egiten du gehiago euskaraz neba-arrebekin; % 7k bi hizkuntzetan berdin; % 36k gaztelaniaz gehiago eta % 56k gaztelaniaz bakarrik.


22. Grafikoa. 25 urtez azpiko elebidunen erabilera neba-arrebekin. Trebiñuko enklabea, 2012



Azkenik, adiskideekin erabiltzen den euskarak nahiko garbi erakusten du erabileraren eta adinaren arteko lotura, zeren bai etxean eta bai lantokian belaunaldi desberdinetako pertsonak izaten baitira elkarrekin.

Biztanle guztiak, ez soilik elebidunak, kontuan hartzen baditugu, asko aldatzen da euskararen erabilera adiskideen artean adinaren arabera, euskararen ezagutzarekin gertatzen den bezala. Horrela, ia hirutik bik erabiltzen du 3 eta 15 urte bitartekoaren artean; hirutik batek baino gehiagok 16 eta 24 urte bitartekoetan; zortziren batek 25 eta 49 urte bitartekoetan eta ia nork ez 50 urtetik gorakoetan.

Gainera, gazteen artean nahiko handia da euskararen erabilera (gaztelania beste edo gehiago), % 29 baita 16 urtez behekoen artean eta % 15 da 16 eta 24 urte bitartekoetan.



Aldiz, soilik elebidunei begiratu gero, adiskideen arteko erabileretan aldeak txikiagoak dira adinaren arabera. 24 urtetik beherakoak dira berriz ere gehien erabiltzen dutenak (> % 80), baina kasu honetan 49 urtetik gorakoak (% 69) eta 35 eta 49 urte bitartekoak (% 60) dituzte atzetik. Bestalde, 25 eta 34 urte bitartekoek erabiltzen dute gutxien (% 36).

Eta euskararen ohiko erabilera (gaztelania beste edo gehiago) handia da adin talde guztietan, salbu 25 eta 34 urte bitartekoen artean. 16 urtez behekoen % 45ek erabiltzen du normalean; 16 eta 24 urte bitartekoen % 35ek; 35 urtetik gorakoen % 30 inguruk, eta 25 eta 34 urte bitartekoen % 8k bakarrik.

Eta elebidun gazteenen erabilera handiagoa da, euskaraz hobeto dakitelako, oro har, eta euskaldun gehiago dituztelako adiskideen artean.


24. Grafikoa. Elebidunen erabilera lagunekin adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



SARE SOZIALETAKO ERABILERA

Inkesta honetan lehen aldiz galdetu da zenbat euskara erabiltzen den sare sozialetan (Facebook, Tuenti, Twitter...). Trebiñuko enklabeako biztanleen % 40k erabiltzen ditu sare sozialak: % 22k egunero; % 9k astean zenbait egunetan edo asteburuetan, eta % 9k noizean behin.

Dena dela, sare sozialen erabilera adinarekin dago lotuta estu-estu. Hala, 16 urtez beherakoen bostetik batek (% 20) erabiltzen ditu; 16 eta 24 urte bitartekoen ia guztiek (% 96); 25 eta 34 urte bitartekoen laurik hiruk (% 76); 35 eta 49 urte bitartekoen ia bitik batek (% 46); 50 eta 64 urte bitartekoen laurik batek (% 25), eta 64 urtetik gorakoek ia inork ez (% 1).



Sare sozialak erabiltzen dituztenen artean, soilik gutxiengo batek erabiltzen du euskara, hots, % 9k: % 4k gaztelania baino gutxiago; % 4k gaztelania beste, eta gainerako % 1ek gaztelania baino gehiago.


Elebidunen artean, euskararen erabilera % 29ra igotzen da: % 11k gaztelania baino gutxiago erabiltzen du; % 14k, gaztelania adina eta % 4k gaztelania baino gehiago.

Dena dela, sare sozialetan euskara erabiltzea adinarekin dago lotuta halaber, hurrengo orrialdeko grafikoetan ikus daitekeenez.


Hala, sare sozialen erabiltzaile guztiak hartuta, elebidunak izan ala ez, 25 urtez beherakoen ia launik batek erabiltzen du euskara; 25 eta 49 urte bitartekoen % 5 inguruk, eta 49 urtetik gorako inork ez.

Elebidunen artean, 16 urtez beherakoen hirutik batek baino gehiagok (% 37) erabiltzen du euskara; 16 eta 24 urte bitartekoen ia erdiak (% 47); 25 eta 34 urte bitartekoen launik batek (% 23); 35 eta 49 urte bitartekoen bostenak (% 19), eta 49 urtez gorako inork ez.

26. Grafikoa. Euskararen erabilera sare sozialetan adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



27. Grafikoa. Elebidunen euskararen erabilera sare sozialetan adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



4. Euskara sustatzeari buruzko iritziak


Kapitulu honetan, Trebiñuko enklabeeko biztanleek euskarari buruz dituzten iritziak aztertuko dira: zehazki, euskarekiko duten interesa; hurrek eskolan erabili beharko luketen hizkuntza-ereduaren eta enklabeeko kaleetako errotulazioan erabili beharko litzatekeen hizkuntzaren gaineko iritzia eta euskara sustatzeko enklabeeko udalak egiten ari diren lanaren balioztapena.

15 urtetik gorakoei bakarrik egin zaizkie galderak, ez baita oso zentzuzkoa adin txikiko haurrei horrelako galderak egitea.

EUSKARAREKIKO INTERESA

Bada euskararekiko interesik Trebiñuko enklabeeko biztanleen artean, zeren % 39k baitio interes handia edo nahiko handia duela, eta % 23k interes pixka bat duela; gainerako % 38k dio ez duela interesik edo interes gutxi duela euskarari.

Euskararekiko interesak, 2007an adierazitakoaren antzekoa da, baina handitu egin da pitin bat 2002an adierazitakoaren aldean, zeren % 30ek bakarrik agertu baitzuen orduan interes handia edo nahiko handia.



Euskararekiko interesean, alde txikiak dira bi udalerrien artean, nahiz eta handixeagoa den Trebiñuko Konderrian, han % 41 baitago euskararekin oso interesatuta edo interesatuta (Argantzunen % 37), baina interes hori handiro aldatzen da azterketako gainerako aldagaien arabera:


- Alderik handienak hizkuntza-gaitasunaren arabera gertatzen dira, zeren elebidunen gehiengo handi batek (% 86) eta elebidun hartzaile gehienek (% 61) baitute euskararekiko interesa, baina erdaldunen lautik batek (% 25) bakarrik.
- Hurrena, jatorriaren arabera, Euskal Herrian jaiotakoek bitik bat baino gehiago (% 55) baitago interesatuta, baina soilik enklabean jaiotakoek lautik bat inguru (% 28) eta beste toki batzuetan jaiotakoek % 22.
- Alde handiak dira adinaren arabera ere, zeren euskararekiko interesak nabarmen egiten baitu behera adinarekin: 35 urtez beherakoek bitik bati baino gehiagori (% 53) interesatzen zaio; 35 eta 49 urte bitartekoek ia bitik bati (% 44); 50 eta 64 urte bitartekoek hirutik bati (% 33), eta 64 urtetik gorakoek zortziren bati (% 13).
- Azkenik, interesa handixeagoa da enklabean erroldatu gabeko pertsonen artean, % 45 oso edo nahiko interesatuta ageri baita, erroldatutakoek % 38ren aurrean.

ZEIN HIZKUNTZA-EREDUTAN IKASI BEHAR LUKETEN HAURREK

Enklabe biziaren lautik hiruk (% 74) pentsatzen du hurrek eredu hirueledunetan, hots, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (B), ikasi behar luketela, edo nagusiki euskaraz (D); eskola-adineko seme-alabak edukiz gero, beraz, % 46k eredu hirueledunera bidaliko lituzke, eta % 28k euskarazko eredura. Gainerako lautik batek (% 14) gaztelaniazko eta ingelesezko eredura (A) bidaliko lituzke, euskara irakasgai dela, edo euskararik gabekora (X) % 13k.

Segur aski, interesgarriagoa izan daiteke zera aztertzea, ea zer hizkuntza-eredu nahi den Trebiñuko enklabe biziaren eskola publikorako. Emaizak ez dira aurreko galderan jasotakoetatik oso bestelakoak, baina 10 puntu egin du behera euskarazko ereduaren aldekoen ehunekoak, eredu hirueledunaren (euskara, gaztelania eta ingelesa) aldekoen onerako. Hala, erdiari (% 53) iruditzen zaio eredu hirueleduna ezarri beharko litzatekeela, eta bostetik bati (% 18) euskarazko eredu; lautik bat gaztelaniazko eta ingelesezko ereduaren aldekoa da (euskara irakasgai dela, % 13), eta euskararik gabe (% 14).

Enklabeko bi udalerrietan, eredu hirueleduna hobesten da eskola publikorako, baina Trebiñuko Konderrian % 56k babesten du, eta Argantzunen apur bat gutxiagok (% 46). Argantzunen euskarazko ereduak babes handiagoa (% 24) duelako da hori; Trebiñuko Konderrian, berriz, % 16koa du.



Aztertutako talde guztietan, eredu hirueleduna da hobetsiena, eta alde txikia da hobespen-ehunekoetan: % 49 gutxienez, eta % 59 gehienez. Alde nagusiak bi muturren artean dira, euskarazko eredu (D) hobesten dutenen eta gaztelaniazko eta ingelesezko ereduak (A eta X) hobesten dituztenen artean:

- Euskarazko ereduari dagokionez, hobespena batez bestekoa (% 18) baino handiagoa da elebidunen artean (% 41), elebidun hartzaileen artean (% 33), Euskal Herrian jaiotakoaren artean (% 27) eta 25 eta 34 urte bitartekoaren artean (% 27).
- Eta gaztelaniazko eta ingelesezko ereduari dagokionez, hobespena batez bestekoa (% 27) baino handiagoa da 64 urtetik gorakoaren artean (% 43), beste toki batzuetan jaiotakoaren artean (% 39), erdaldunen artean (% 35) eta Trebiñuko enklabearen jaiotakoengan (% 34).


Hala ere, Trebiñuko enklabean, eskolaurrea, haur-hezkuntza edo lehen hezkuntza ikasten duten haurren gurasoak bakarrik kontatuta, iritziak bestelakoak dira, zeren gaztelaniazko eta ingelesezko eredu (A eta X) aldekoak apur bat gehiago

baitira eredu hirueledunaren eta euskarazkoaren aldekoak baino: % 51, % 46ren aurrean. Dena dela, Trebiñuko ikastetxeetan ikasten duten haurrak (% 30) ez dira beren adineko haurren (12 urtez behekoak) herena ere, haur gehienek Gasteizen edo Langraitzen ikasten baitute.

Elkarrizketatutakoei Trebiñuko enklabeko eskola publikorako ingelesa edo euskara nahi duten argi adierazteko eskatuta, erdiak baino gehiagok (% 55) ingelesa hobesten du; bostenak (% 21) bi hizkuntzak eta laurdenak (% 23), euskara.

Bi udalerrien artean, ingelesak babes handiagoa (% 60) du Argantzunen, Trebiñuko Konderrian (% 53) baino.


30. Grafikoa. Trebiñuko eskolarako euskara ala ingelesa hautatuko luketen. 2012



Kolektibo gehienetan, erdiak baino gehiagok ingelesa hobesten du, eta hauek dira salbuespenak: elebidunak (% 27ko hobespena), elebidun hartzaileak (% 41), 25 eta 34 urte bitartekoak (% 45) eta Euskal Herrian jaiotakoak (% 47).

Atal hau amaitzeko, galdetu zaie elkarrizketatuei ea zein hizkuntzatan egin behar liratekeen eskolaz kanpoko jarduerak Trebiñuko enklabean. Gehiengo handiak (% 72) esan du euskaraz eta gaztelaniaz; % 16k, euskaraz bakarrik, eta gainerako % 11k, gaztelaniaz bakarrik.

Ia ez dago alderik udalerrien artean eta aintzat hartutako talde guztietan, eredu elebiduna hobesten da argi eta garbi.




ZEIN HIZKUNTZATAN ERROTULATU BEHARKO LIRATEKEEN KALEAK TREBIÑUKO ENKLABEAN

Galdetu zaielarik elkarrizketatuei ea zein hizkuntzatan errotulatu beharko liratekeen Trebiñuko enklabeko herrietako kaleen izenak, hirutik bik (% 66) erantzun du euskaraz eta gaztelaniaz; lautik batek (% 24) gaztelaniaz soilik, eta hamabiren batek (% 8) euskaraz bakarrik.

Alde txikia da emaitzetan udalerrien arabera, nahiz eta gaztelaniaz bakarrik errotulatzearen aldekoak gehiago diren Trebiñuko Konderrian (% 27) Argantzunen (% 17) baino.

32. Grafikoa. Kaleen izenetarako aukeratuko luketen hizkuntza. 2012



Aztertutako adin-talde guztietan, errotulazio elebidunen aldekoak gehiengoa dira, salbu 64 urtetik gorakoen artean. Haien artean kaleen izenak soilik gaztelaniaz jartzearen aldekoak gehiago dira (% 52) bi hizkuntzetan jartzearen aldekoak baino (% 45).

Grafikoan ikus daiteke adinarekin batera hazten dela gaztelaniaz soilik errotulatzearen aldeko babesak. Babes hori % 12koa da 25 urtez beherakoan artean; % 15koa 25 eta 34 urte bitartekoan artean; % 20koa 35 eta 49 urte bitartekoetan; % 26koa 50 eta 64 urte bitartekoetan, eta 64 urtetik gorakoan artean ageri da jauzi handia, hor % 52koa baita babesak.

33. Grafikoa. Kaleen izenetarako aukeratuko luketen hizkuntza adinaren arabera. Trebiñuko enklabea, 2012



Aldeak txikiagoak dira gainerako aldagaien arabera. Horrela, gaztelaniaz soilik errotulatzearen aldekoak herena baino ez dira aldekoenen artean: % 34 Trebiñuko enklabean jaiotakoena artean; % 33 beste toki batzuetan jaiotakoena artean, eta % 31 erdaldunen artean.

EUSKARA SUSTATZEKO UDALEK EGITEN DUTEN LANAREN BALIOZTAPENA

Inkesta bukatzeko, eskatu zaie elkarrizketatuei baliozta dezatela nolako lana egiten ari den beren udala euskara sustatzeko eta aipagarriena da hirutik batek baino gehiagok (% 37) ez duela jakin galderari erantzuten.


Udalaren lanaz iritzia adierazi dutenen artean:

- % 2ri desegokia iruditu zaio, lana urrunegi joan delako,
- % 14ri egokia, ez baitago zertan orain baino gehiago egin,
- % 24ri egokia, lan handia ari baita egiten,
- eta % 23ri desegokia, gutxi egiten baita.

Dena dela, alde handia dago balioztapenotan udalerrri batetik bestera. Argantzunen ia bitik bati (% 45) iruditzen zaio udalak lan handia egiten duela euskararen alde eta soilik % 15i gutxi egiten duela; Trebiñuko Konderrian, aldiz, udalak gutxi egiten duela diotenak askoz gehiago dira (% 27) lan handia egiten duela diotenak baino (% 16).

Argantzungo Udalak beti iritzi hobea jaso du Konderrikoak baino, euskararen alde egiten duen sustapenagatik, eta, gainera, hobetu egin du balioztapena, 2007koarekin konparatuta; Konderriko Udalak, aldiz, alderantziz, balioztapen txarragoa jaso du 2007koaren aldean, eta are okerragoa 2002koaren aldean.

34. Grafikoa. Udaletxeak euskara sustatzeko egiten duen lanaren balorazioa. 2012



Sustapena urrunegi joan dela dioten ehunekoa oso txikia da aztertutako talde guztietan: gehienez ere % 4koa da 50 urtetik gorakoen artean, eta % 3 erdaldunen eta beste toki batzuetan jaiotako artean.

Eta euskararen sustapena txikia dela dioten ehunekoa batez bestekoa (% 23) baino handiagoa da, argi eta garbi, elebidunen artean (% 45), elebidun hartzaileen artean (% 34), 25 eta 34 urte bitarteko artean (% 30) eta Euskal Herrian jaiotako artean (% 30).

Emitza nagusien laburpena

Trebiñuko enklabe bikoiztuaren biztanleria hiru multzo oso desberdinez osatuta dago:

1. «Enklabean jaioak», lautik bat baino apur bat gehiago. Erdia 50 urtetik gorakoa da; gehienak nekazaritza-sektorearekin daude lotuta, eta batez bestekoa baino ikasketa maila apalagoa dute. Dena dela, gero eta «pisu» handiagoa dute talde horretan 16 urtetik beherakoek, zeinak «enklabean jaio ez zirenen» eta urbanizazioetan bizi direnen seme-alabak diren.
2. «Azken 15 urteotan urbanizazio berrietara bizitzera etorritakoak», dagoeneko herena baino gehiago direnak. Gehienak 30 eta 55 urte bitarteko bikoteak dira, seme-alabadunak edo gabeak, Gasteiztik etorriak; normalean biek lan egiten dute, eta Gasteizen aritzen dira.
3. Bi muturren artean, «lehenago etorritakoak» daude, nahiz eta antz handiagoa duten etorri berrien ezaugarriekin. Biztanleriaren laurdena osatzen dute.

Biztanleria % 30 hazi da 2002arekin konparatuta, eta, egun, enklabe bikoiztuaren biztanleriak, oro har hartuta, urbanizazio berrietan bizi den biztanleriaren antz handiagoa du «jatorrizko biztanleriarena» baino. Aipagarria da biztanleen erdiak 25 eta 49 urte bitartean daudela, eta lanean edo ikasten ari diren gehienek Gasteizen edo inguruetan egiten dutela.

Trebiñuko enklabe bikoiztuaren biztanleriaren bostena baino gehiago elebiduna da (% 22); handixeagoa da ehunekoa Argantzunen (% 23) Trebiñuko Konderrian baino (% 21,5). Horrezaz gain, % 7 elebidun hartzailea da.

Elebidunen ehunekoa bikoiztu egin da 2002tik hona, eta % 11tik % 22ra igaro da. Handitu egin da, halaber, elebidun hartzaileen ehunekoa: % 9,5etik % 17ra.

Elebidunen ehunekoa oso desberdina da adin batetik bestera: elebiduna da 16 urtez beherakoen bi heren (% 65), 16 eta 24 urte bitartekoen ia erdia (% 42), 25 eta 34 urte bitartekoen laurdena (% 23), 35 eta 49 urte bitartekoen zortzirena (% 13), 50 eta 64 urte bitartekoen % 5 eta 64 urtetik gorako ia inor ez (% 0,5).

Elebidunen ehunekoa antzekoa da Trebiñuko enklabeen jaiotakoan (% 26) eta Euskal Herrian jaiotakoan (% 28) artean, baina % 4ra jaisten da beste toki batzuetan jaiotakoan artean. 2002ko datuekin konparatuta, elebidunen ehunekoa % 4tik % 26ra igo da enklabeen jaiotakoan artean, nabarmenki handitu baitira gazteen arteko euskaldunen ehunekoa eta Trebiñuko enklabeen jaiotako gazteen kopurua.

Elebidunen bostenak familia bidez jaso du euskara; erdiak baino gehiagok irakas-kuntza-sistemaren bidez jaso du, eta gainerako bostenak bere kabuz ikasi du. Beraz, ez da harrizkoa gehienak errazago moldatzea gaztelaniaz euskaraz baino. Trebiñuko enklabeen biztanleek gutxi erabiltzen dute euskara, bostena baino ez baita euskaraz aise hitz egiteko gai, eta, gainera, gehienek ez dute ingurune euskaldunak aztertutako esparruetan.

Honako hauek erabiltzen dute neurri handiagoan edo txikiagoan: % 8k, lankideekin; % 10ek etxean; % 19k adiskideekin, eta gazteen % 34k neba-arrebeekin. 2002ko datuekin konparatuta, bikoiztu egin da euskararen erabilera, hots, euskaldunen ehunekoaren hein berean hazi da.

Soilik elebidunak erreferentziatzat hartuta, honako hauek erabiltzen dute: hirutik batek etxean; ia erdiak lankideekin; gazteen erdiak baino gehiagok neba-arrebeekin, eta ia lautik hiruk adiskideekin.

Sare sozialetan ere, gutxiengoak erabiltzen du euskara: hamarretik batek, zehazki, eta hirutik batek, elebidunak soilik aintzat hartuz gero.

Oro har, gazteek gehiago erabiltzen dute euskara helduek baino, euskaldunagoak baitira, eta, oro har, hobeto baitakite euskaraz.

Eta haurrentzako hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan, ia erdiak eredu hirueleduna (euskara, gaztelania eta ingelesa) aukeratzen du; laurdenak, euskara nagusi den eredu, eta gainerako laurdenak gaztelaniazko eta ingelesezko eredu (euskararekin edo gabe).

Aztertutako talde guztietan eredu hirueleduna dute gogokoen. Dena dela, soilik enklabeen ikasten duten haurren gurasoak eta haurron eskola publikoa erreferentziatzat hartuta, erdia gaztelaniazko eta ingelesezko ereduaren alde dago (euskararekin edo gabe). Edonola ere, enklabeen ikasten duten haurrak beren adinekoen herena dira soilik.

Trebiñuko enklabeen herrietako kaleen izenak errotulatzeko hizkuntza aukeratzeko orduan, hirutik bi elebitasunaren aldekoa da; lautik bat gaztelania hutsaren aldekoa, eta hamabitik bat euskara hutsaren aldekoa. Aztertutako talde guztietan,

aukera elebidunaren aldekoak dira gehienak, 64 urtez gorakoak izan ezik, haie-
tako gehienak gaztelania hutsean errotulatzearen alde baitaude.

Azkenik, euskararen sustapenean enklabeko udalak egiten ari diren lanari dago-
kionez, hirutik batek baino gehiagok ez du iritzirik, eta, iritzia adierazten dutenen
artean, gehienek uste dute egokia dela, nahiz eta lautik batek dioen udalek gutxie-
gi egiten dutela.

Dena dela, kritikak Trebiñuko Konderriko udalarentzat dira batik bat, zeren % 27ri
iruditzen baitzaio gutxi egiten duela euskararen alde, eta soilik % 16ri iruditzen
zaio lan handia egiten duela; Argantzunen, aldiz, % 45i iruditzen zaio udalak lan
handia egiten duela euskara sustatzeko, eta % 14ri, gutxi egiten duela.

